

Arrasate

P R E S S

1998ko
Irailak 10
492. zenb.

Jatorra, ederra

Jorge Fernandez,
Mister Euskadi

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA ELKARRIZKETA: ARANTZA OZAETA
EUREN IKUSPUNTUTIK: ELI ALZOLA • KIROLAK: MONDRA TALDEA

99/00 euskara ahora ahora euskara



EUSKARA IKASTAROAK

oraina
euskaraz
da

Argibideak eta matrikula:

ERDU AEH

Garibai etorbidea, 14 - 3.
Tel.: 943 77 03 69

Maila guztiak

EGA eta
ALFABETATZEA

Matrikula epea: irailak 29

- Udalaren laguntzaz
- Beka sistema



IZENA EMAN DEK-N

ikastaroak eta bertotriak

Olatuaren bueltan

Oso ondo iruditu zitzaidan aurrekoan Mikel Irizarrek idatzitakoa. Gauza batzuekin ados, beste batzuekin tira, baina berarekin bat egin dut, bereziki gauza txikien garrantzia nabarmendu behar dela dionean. Gainera, opor osteko garaia, sarri hausnarketa egiteko unea izaten da. Badirudi oporrek nolabaiteko apurketa edo etenaldia dakartela (ez guztiontzat, badakit), eta gure burua indarberritzeko erabiltzen ditugun arren, askotan oso gogorra egiten zaigu eginbeharretara (!) bueltatzea.

Agian oporretan ez genituen kristorenak egingo, edo bisitatu eta ikusi ditugun lekuak ez dira ahaztu ezin, baina teorian ez bada



Iker Barandiaran

“Indarberritu ote garen susmoa izan arren, hau ez da garai gozoegia”

ere, nahi izan duguna egin dugu, ordutegi, lotura eta nagusirik gabe. Hemen gelditu izanez gero, jairik jai deskonektatu nahi duenak ere ez du garai aproposagorik. Hala omen da, egin beharko lukeen eguraldiagatik eta santoralek marketinarekin duten zerikusiarengatik.

Askorentzat azterketa garaia da, beste batzuentzat ordutegi zehatzen menpe egotera bueltatzeko unea (gutxienez). Egia esan, indarberritu ote garen susmo hori izan arren, ez da garai gozoegia, ez horixe.

Neuri ere halako zerbitu gertatu zait. Nire irteeratxotik lehenago bueltatu nintzen arren, uda instant batean igaro da eta bat-batean ezusteko *marroi* batzuk suertatu zaizkit, ditudan azterketa parearekin batuz, pilatu eta egoera

deseroso batean jarri nautenak. Horrexegatik, orrialde hau betetzeko deia jaso dudanean, ez dut kopeta argitu.

Mikelek dioen bezala, ez da hainbesterako eta nahi izanez gero, ez da hain zaila motibazioak aurkitzea. Oporretan dirua gastatu arren, tabernetan txikito batzuk hartzeko adina diru daukagu, elkarri kontatzeko gauza berri gehiago dugu, aurretik urrunduginen bezala, orain lagunak berriz elkar ikusteko aukera dugu...

Aipatutakoaz gain, bada nabarmendu nahiko nukeen zerbait. Adibidez, abuztu eta irailaren hasieran herriko gazterien atal garrantzitsu batek guztiona den zerbaiten alde lan egiteko erakutsi duen jarrera eta ekimena. Gaztetxean berrituz diren lan txandez ari naiz eta gaur egungo kooperatiben inertiak eragindako “balore eta egutegi solidarioekin” pentsaezina zirudien arren, baliteke itxaropenaren izpiak zabaltzen joatea.

Hala bada, sar dadila kalabazan eta ez bada, afari bat egingo dugu berau jateko. ■

“Mondragon Unibertsitateko ikasleen %100ek ia, lana aurkitzen dute”

Jabier Retegi



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjio Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Aranzazu Lagunilla, Aranzazu Arrolobe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako barriemak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldi-zikloaren adierazitako esanetan eta iriztzen erantzunikuzinik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza.



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza.

2.306

eskari egin dira
Arrasaten egingo diren
etxeetarako

Eusko Jaurlaritzaren Etxebide agentziak 346 eskari jaso ditu eta Anboto agentziak 1.100 Zerrajeraren lurretan egingo diren etxeetan izenak emateko. Lehenak babes ofizialekoak dira. 860 eskari egin dira IFAMeko etxeetarako.

ITURRI ONETIK

“Giuliano” Sagasta

Gure artean da, irailero bezala, Julian Sagasta *Olatxo*, —lagunek “Giuliano” deitzen diote— Erroman bizi den abade agustino mondragoetarra.

Organo jole aparta, Vaticano II. Kontzilioko organo jole ofiziala izan zen. Erromako Santa Maria Handia basilikako organo jolea ere izan zen, 75 urterekin erretiratu zen arte. Orain ere jotzen du, San Giuseppe parrokiari. 85 urte ditu eta lehen baino lasaiago bizi da, garai batean Alemanian eta Ingalaterran egiten zituen kontzertuak alde batera utzita.

Egun hauetan pozik dabil berriztatuko organoa jotzen, Arrasateko parrokiari. Urtero bezala, ostiralean berak esango du meza, bere kintoekin bazkaltzera joan aurretik.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 10**
 • Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 11**
 • Ruiz, Maala
- Igandea, 12**
 • Morales, San Andres
- Astelehena, 13**
 • Amezua, Santa Marina
- Asteartea, 14**
 • Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 15**
 • Ruiz, Maala
- Osteguna, 16**
 • Azkoaga, Iturriotz

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igualatorioa 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07
- Ertzaintza**
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udai taldea 943 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

ENRIKE OPERAU DEIXIELA!

raile aurrera doie, urteko beratzigarren hilabetie eta Enrike ez daue oraindik operau. Hori da buruen dabitte-tena egunokaz. Horrek esan gure dau hilaren akaberarako beratzi hilabete eingo dittule muletan gainien, ezkerreko hanka lurrien jarri barik. Hala-ekorik zelan dan posible esaten dutzet nire buruei, pertsoniei halakorik zelan egin leikixon. Enrike gure semie da, Murtziako espetxien dau preso azkenengo hamar urtietan (Mondrauetik 800 kilometro-rra), eta aurretik beste bi egin zitun beste kartzela batzutan. Aspalditik dabil orkatileko problemekin eta badie bost urte esan eutziela operetie zala egokixena, tendoi bat txarto eukela eta. Hara eta hona ibili eta gero, azkenien, 98ko julixuen Murtziako ospitaleko operaziño zerrendan sartu zan. Donostien operetie gurau guk, bera bisitetan jueten dan hemengo medikuek operetie beti emuten dauelako beste konfiantza bat. Baine Martutenera trasladue eskatu eta jai, ez auien ekarri. "Tira ba, —pentsau geuen—, hemen ez bada Murtzian operau deixiela eta listo, ia Enrikei orkatileko minek kentzen dutzien eta bizimodu normala ein leiken". Inuxentiek gu, hamalau hilabete pasau die eta Enrikek operaziño barik jarraiketana dau, orkatile gero eta txarrau daukela. Bati eta bestiei deike gabitz—kartzelara, medikuei eta beste askoi—, baine ezebez. Eta orduen, zer ein biher

dou guk? Zer pasau biher da Enriken orkatilaz?

*Angelita Biteri,
 Enrike Letona
 presoaren ama.*

ASTE SANTUKO PROZESIOA

Arrasate Pressen lan egi-ten duzuen langile agur-garriak!

Gutun honen bitartez agur bero bat bidali nahi dizuet aldizkarian lanean ari zaretan guzti-guztiori.

Ondoren, gai zehatz bat plazaratzera pasatu nahi nuke, nire ustetan behintzat, oso erakargarria eta ilusioa pizteko modukoa bai herriarentzat eta, nola ez, baita herri honetan bizi diren biztanleentzat ere. Zera da kontua:

Gehienak behintzat gurasoen bitartez edo kalean entzundakoen arabera, gogon ditugu aspaldiko ohitura eta ospakizunak eta nola errespetu eta fede osoz bizi izaten zituzten. Bai eta udaberria heltzean Aste Santuko prozesioak noiz helduko zain egoten zirela gure nagusiak.

Gaur egun, eta batez ere gazteen artean, fede falta penagarria bizi dugu. Gure arteko

nagusi batzuen artean ere. Baina ez da fede falta soilik. Gure ustez, gauzak ospatzeko antzinako ilusioa falta da. Eta nirekin bat etorriko zaretelakoan nago, lehenengo eta behin ilusio hori piztu beharra dagoela arrasatearren artean. Denon zeregina da gure biztanleen artean berriz ilusio hori piztea, nork bere esparruan eta guztion mesedera-ko, noski. Eta zergatik hori? Ez zaizue iruditzen erretzeko modukoa dela beti atzera begira ibili beharra garai haiek behin eta berriz bizitzeko?

Zergatik ez, gure esku badago, denon artean ahalegin bat egin garai haiek berriz ere berreskuratzeko? Honela gure zaharrek garai haiek biziko dituzte berriro eta guk jai haiek nola ospatzen zituzten ikusiko dugu.

Hauxe gure asmoa: zer iritzi duzue berriz ere antzinako Aste Santuko ospakizunak berreskuratzen saiatzen baldin bagara?

Erantzun baten zain gelditzen garen bitartean, jaso ezazue gure agurrik beroena eta besarkada handi bat.

Begirunez,

*Jose Ignazio
 eta Francisco Javier
 Barrutiabengoa*

Zuzenketak

Joan den asteko Foto Zaharren hiru huts egin genituen. On Felix Saez de Iñarra barik Saez de Ibarra behar zuen. Ignacio Saez de Etxarri zioen tokian, Sainz Larretxau Etxarri. Eta Larrinaga barik, Larrino. Barkatu hanka sartzeak.

Siti Siti

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Legeztatuko zenuke prostituzioa?

Alemaniko gobernua prostituzioa legeztatzekotan da.




Susana Gomez
(17 urte)
Ikaslea

Ez dakit. Agian bai, baina ez dakit.



Antonia Hurtado
(50 urte)
Langilea

Bai. Legeztuta edo ez, beti izango dira bezeroak.



Jordi Gomez
(26 urte)
Langilea

Bizitzeko beharra daukana ari da horretan. Kasu horretan soilik legeztatuko nuke.



Zesar Loiti
(60 urte)
Langilea

Ez nekien ezer, baina hobe litzateke agian legeztatuko balute.



Marko Antonio Parra
(49 urte)
Langilea

Debekatua dagoen guztia txarra izaten omen da. Legeztatua dagoena, berriz, kontrolatua.



Aniotz Rodriguez
(22 urte)
Langilea

Nire ustez ez, baina dirua irabazteko modu bat da... Agian horrela arazo gutxiago izango lukete.



Maria Jesus Zubillaga
(64 urte)
Erretiratua

Gauzak daudenetan lagako nituzke.



Idoia Aranburuzabala
(20 urte)
Ikaslea

Norberak jakingo du zer egin bere buruarekin, baina legezkoa balitz, agian ezberdina litzateke.

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

... **LILURIA** ...
OIHALAK
Denboraz prestatu
Maritxurako jantzia
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABAETA

USTEAK USTE

Presoak hurbilago

Espainiako Gobernuaren erabakia bete bezain laster, Goio Etxaberen familiartekoez Ocañako espetxera barik, Martutenera joango dira bisitan, kilometroak, denbora, dirua eta osasuna irabaziz.

Beste horrenbeste gertatuko zaie Joseba Garitaonaindiaren senitartekoei: Madril utzi eta Langraitzera joan beharko dira.

Pozten naiz bi preso hauen —eta hurbilduko dituzten guztien— familiengatik. Hala ere, Arrasaten beste 11 preso ditugu Espainiako eta Frantziako espetxeretan sakabanaturik. Euskal Herrikoak laurehundik gora omen dira.

Bizi dugun tentsioa indargabetzen laguntzen duten neurriak onak dira. Baina ez dugu ahaztu behar bazkaria legezko jatordua dela eta ogi papurrak hondarrak baino dexente gutxiago direla.

Gai honetan lehenengo eta behin legea bete behar da. Hori egingo balitz, ehundik gora euskal presok kalean beharko lukete.

Bakebidea dago jokoan eta gai hau giltzarria izan daiteke. Egin dezagun aurrera.

Joxe Aranzabal

Erromesaldia Arantzazura

* Eli Alzola

Ohitura zaharrari jarraituz, irailaren 12an —Arantzazuko Ama Birjinaren jaiaren ondorengo igandean—, Arrasateko herriak aspaldi Ama Birjinari egindako agindua beteko du, santutegira erromesaldia eginez.

Oinezkoen erromesaldia goizeko 06:30ean abiatuko da, honako ibilbide hau egiteko: Kontzeziño auzoa, Bedoña auzoa, Urkulu, Urrejola, Jaturabeko urtegia Aratzen eta Gesaltza. Hiru bat orduko ibilaldia beharko da Gesaltzara iristeko.

Goizeko hamarrak inguruan, autobusak iritsi ondoren, basilikaraino falta diren azken hiru kilometroak errepideari jarraituz egingo dira, errezu eta otoitz artean, frantziskotarren laguntzarekin.

Arantzazun ongi etorria egingo zaie erromesei eta astia emango zaie mokadutxo bat egin eta indarrak berreskuratzeko. Ondoren, eguerdian, On Jose Maria Astigarraga Arra-

sateko parrokoak Meza Nagusia esango du.

Urtetik urtera geroz eta gehiago dira erromesaldia oinez egiten dutenak, mendibideetan zehar. Hauek ondo markaturik daude eta behar bezala seinaturik. Beraz, sasoiari jarri eta zatoz zeu ere.

Ehundaka mondragoetar joaten dira Gipuzkoako amatxoren santutegiraino, oinez batzuk —dozenaka batzuk lehen, ehundaka gaur egun— eta beribilez edo autobusez beste asko. Udal agintarien zerbait ordezkari ere hantxe izaten dira, herriko bandera eta guzti.

Oinez joatea erabakitzen

du tenek arazoa izan dezakete itzultzeko. Eragozpenik ez izateko autoa Arantzazun utz dezakete bezperan. Bestela, lagun edo senitarteko batek eraman beharko ditu etxeraino. Horregatik, ez litzateke kaltegarria izango autobus zerbitzua izatea handik itzultzeko. Dei egiten diegu autobusa antolatzen dutenei, hori kontuan har dezaten.

Autobusak goizeko 09:30ean abiatuko dira Arrasateetik. Etxeratzeke, berriz, 14:00etan irtingo dira Arantzazutik. Argibiderik nahi duenak Ekuador Bidaiak agentziara jo dezake.

Goazen bada, pozik eta alai Arantzazura. Goazen bai, mondragoetarrok Birjina Amari zintzo eskaintzera gure herriaren eskerrak. Arrasate beti izan da Arantzazu zale.

Kantu zaharrak honela dio: “Arantzazun Maria, agertu zanian,

Oñatigaz Mondragoe, zeukan bere aldian.

Inork baino lehenago, gure gurasoak, Arantzazura zituen, zuzendu pausoak...”

Agur, agur, agur Maria... Agur, agur, sor-tzez garbia.

*Erromesa

“
Arrasateetik
Gesaltzaraino joango gara
mendirik mendi, Urkulun
barrena
”

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

beatriz
oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

...zure independentzia.



Asteazkenetan **UNI**
Unibertsitatea, informatika...

Ostegunetan **barkatu**
Gazteentzako gehigarria...

Ostiraletan **Mirru**
Mendi eta abentura zaleentzat...

Larunbatetan **bega**
Literatura, artea...

Igandeetan **K2**
Erreportaiak eta elkarrizketak...

Haurrentzako jolasak **Xingela**
denborapasak...

Egunkaria



10

ostirala

■ ZINEA

Nothing Hill, Alai zine-
man, arratsaldeko 22:00etan.

■ URIBARRI-ERGUINGO
JAIK

- 19:00 auzoko hildakoen aldeko meza.
- 19:00 erraldoiak eta buruhandiak.
- 19:00 mahai jokoak.
- 19:30 herri txikiteoa, fanfarre eta guzti.
- 23:00 gaujaia Usaetxe plazan, Fabula rock taldearekin.

■ LORE JOKOAK

- 22:00 "Poesiaren alde, poesiaren kontra" errezitaldia eskainiko dugu Aramaioko Bañera parkean.

11

larunbata

■ ZINEA

Nothing Hill, Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30ean eta 22:00etan.

■ URIBARRI-ERGUINGO
JAIK

- 10:00 diana, erraldoiak eta buruhandiak, Arrasateko txistulariekin batera.
- 10:30 atletismo probak Iturripeko pistan.
- 12:00 haur jolastokia Usaetxe eta Larrea plazan.
- 16:00 mus txapelketa (izen ematea Alcaide tabernan).
- 19:00 Jon Azpillaga eta Joxe Agirre bertsolariak, Arima Zuri plazan.
- 22:00 herri afaira Hilarion jatetxean.
- 23:00 gaujaia Udalpe plazan, Continente orkestrarekin.

■ LORE JOKOAK

Txistularien eguna ospatuko da:

- 10:30 txistularien kalejira.
- 13:00 txistu kontzertua plazan.
- 18:00 txistularien kalejira.

12

igandea

■ ZINEA

Nothing Hill, Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30ean eta 22:00etan.

■ ERROMESALDIA
ARANTZAZURA

Goizeko 06:30ean aterako dira Kontzeziñoko arku-
petatik oinez doazenak. Auto-
busak 09:30ean aterako dira
Garibaitik eta Musakolatik.
Santutegirako sarrera ofizia-
la 10:50ean izango da. Meza
nagusia, 12:00etan.

■ URIBARRI-ERGUINGO
JAIK

- 10:00 diana eta kalejira, erraldoiak eta buruhandiekin, Arrasateko txistulariekin batera.
- 13:00 aizkolariak Iturripen.
- 17:00 pailazoak Iturripeko kiroldegian.
- 19:00 gaujaia Uriben, Txinparta taldearekin.
- 22:00 jaien azken pindar-
rrak.

13

astelehena

■ ZINEA

Nothing Hill, Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 21:30ean.


14 asteartea

■ ZINEA

Nothing Hill, Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 21:30ean.

■ ERAKUSKETA

Udala auzoko Larrine-
txe jatetxean Imanol
Aranbururen irarlanak eta
Luis Lariosen argazkiak
daude ikusgai, irailaren
9tik urriaren 1era.



■ MARRAZKI ETA MARGO IKASTAROA

Irailaren 20an hasiko
da Monterronen marrazki
eta margo ikastaroa. Izen
ematea irailaren 13tik
17ra bitartean, Monterro-
nen, 17:00etatik
19:00etara. Matrikula
15.300 pta. Argibideak:
943 77 01 05.

■ NORBERA ZAINTZEKO

Norbera zaintzeko
ikastaroa antolatu du
Arrasateko Yoga elkarte-
ak. Ikastaroa urriaren hasiko
da. Argibideak: 943 770
133 zenbakian.

■ HELDUENTZAKO HEZIKETA

Helduen Heziketa
Iraunkorreko zentruak
matrikulazio epea ireki du.
Argibideak 943 77 11 72
zenbakian.

■ ARKU TIRAKETA

Arku tiraketa ikastaroa
antolatu du Deba Garaiko
Mankomunitateko Kirol
Zerbitzuak. Izena emateko
Bergarako Udala Kirol
Zerbitzura jo daiteke, 943
779 167 telefonoan.

Golf ikastaroa ere
antolatu dute. Horretarako
943 779 167 zenbakira
dei daiteke. Ikastaroa
irailaren 18an hasiko da.

■ UR ETA ZABOR ZERGAK

1999ko bigarren hiru
hilabeteko ur eta zabor
zergen ordainagiriak
urriaren 31 arte ordain
daitezkeela eman du
aditzaera udalak. Epe hori
pasatu ondoren, ordaindu
gabeko ordainagiriak
%20ko gainkarguarekin
kobratuko dira.

■ MARGO ERAKUSKETA

Julio Galarta margolari
arrasatearrak Zarautzen
ireki berri du margo
erakusketa. Kayua erakus-
keta aretoan egongo dira,
irailaren 30era bitartean.

■ GOIKOBALUREN ENTSEGUAK

Pasa den ostegunean
hasi zen Goikobalu entse-
guekin. Parte hartu nahi
duenak ateak zabalik
dauzka: asteartero
21:00etan Arrasate
Musikalen eta ostegunero
20:00etan Gazteluondo

Ikastolan elkartzen dira.
Goikobalu-Txiki, aldiz,
irailaren 15ean hasiko da
entseguekin. 20:00etan,
Gazteluondon.

■ JOKIN ZAITEGI

XIII. itzulpen laburren
sariketa abiarazi du AEDk.
Edozeinek har dezake
parte. Munduko edozein
hizkuntzatatik itzulitako
idazlanak aurkez daitezke.
Lanak 15-30 orri bitarteko-
ak izan beharko dira eta
jatorrizko testuak 1996-
-1999 bitartean idatzitako-
ak. Urriaren 29a baino
lehen aurkeztu behar dira
AEDn. Irabazleak 200.000
pta irabaziko ditu. Bigarre-
nak, berriz, 100.000 pta.

■ ARGAZKI LEHIAKETA

Gazteria eta Emakume
Sailak, "Gazteak eta
2000. urtea" X argazki
lehiaketa antolatu du, ASA
taldearekin batera. Lanak
aurkezteko epea urriaren
8an amaituko da. Sariak
75.000 eta 50.000
pta.koak izango dira.
Argibideak Udaleko Gazte
Zerbitzuan edo 943 77 00
65 zenbakian.


Denda berria!

Fabrikako prezioak



Amillaga industrialdea, 5
Tel./Fax: 943 76 72 52
BERGARA

Era guztietako
ohial eta ehunak,
errezelak, eta
etxerako alfonbrak



ITVaren kalean, Renaulten ondoan

Jesusi Etxebarria

MUSIKA ESKOLA

1999-2000 IKASTURTEKO
MATRIKULA EPEA ZABALIK: 6tik 30era

- Solfeoa, abesbatza, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta gitarra (azken modalitate guztietan - klasikoa, rock-a, blues-a, modernoa, etab), solfeoz edo zifraz.
- 5 urtetik aurrerako umeentzat eta helduentzat.
- Izena emateko: 17:00-21:00, akademian astelehenetik ostiralera edo telefonoz 21:30etatik aurrera

Iturriotz 32, etxabea. Tel.: 943 79 17 67

Arrasate

LANAK

OTALORAN


Pilotalekua egiteko lanak.

KONTZEZIÑON

Saneamendu lanak Zerka-ostetatik Garibaira bitartean.


AGERRE PLAZAN

Oraindik ez dira lanak amaitu.




Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 10



LARUNBATA 11



IGANDEA 12

Lehen orduetan behelainoa izango dugu, baina berehala jaso eta eguzkia izango da nagusi.

Eguraldiak ez du aldatuko. Goizean behelainoa eta eguzkiarekin zehar zerua oskarbi. Tenperatura ez da aldatuko.

Arratsalde aldera okerrera egin dezake, baina zeru oskarbia izango da nagusi. Haizeak ipar-mendebaletik joko du.

Ilargia



Ilgora

Irailaren 9an ilberri izan zela eta, ilgora hasiko da datorren ostiralean.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean
18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santa Teresa


Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%71,8




Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- SOS Arrazakeriak Jose Mari Loiti orduko alkatearen aurkako dilijentziak hasi zituen, Zaldispeko protugaldarren auzia zela eta.
- Eneko Allende ATBko lankidea hil zen Zarautzen, irailaren 9an.
- Enrike Pagoaga askatu zuten irailaren 4an, polizia frantsesak Hendaian atxilotu ostean.



OMU
ZERAMIKAK



**Zeramika
Arte
unibertsala**

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan

“Hiri berria” izeneko auzoa

Asteburuan zehar Uribarri auzoko jaiak direla eta, ohi dugun moduan auzo horri buruz hitz egiteko parada aprobetxatu dugu. Horretarako, hango auzo alkatearekin berbetan izan gara, Miren Lorea Lanarekin. Alkate moduan bigarren urtea betetzen ari da, udaletxeko zinegotzi karguari uko egin ostean.

6.000 biztanle batzen ditu Arrasateko mendebaldean dagoen auzo honek. Langileak dira gehienak. Zortzi urtetik hona, gainera, 30-40 urteko bikote gazteak ugaltu egin dira. Ondorioz, haurrak ere gehiago dira Uribarri alde horretan.

Nahikotxo aldaketa jasan ditu auzoak. Lehen, Arrasateko erdigunetik urruti samar zegoen kanpoaldea zela ere esaten zen. Orain, ordea, Santa Barbara parkeak lagunduta, batez ere, pasiada bat emanez hel daiteke hara.

PREMIAK

Jende ugaltzeak sortutako beharrak dira batez ere auzo honek dituenak:

- **Gizarte Etxea:** egon badago, baina orain erretiratuentzat da batez ere. Auzotarrek Gizarte Etxe hori handitzea nahi dute. Honela, gimnasio bat, balioanitzeko gela bat eta Gazte Txoko bat ere jartzea eskatzen dute. Gazte Txokoetan sartu ezin diren gaztetxoentzako ludoteka edo bestelako tokiren baten beharra ere ikusten du auzo alkateak.

- **Parkina:** jendea ugaltu denez, auzoko automobilak ere ugaltu egin dira. Zirkulazioa ere arazo handia da auzo honetan.

- **Berdegunek:** azken urteotan eraikitako etxebizitzien ondorioz, zementoa da nagusi auzoan eta berdeguneak falta dira.

JAIETAKO EGITARAUA

■ OSTIRALA

19:00: hildakoen omenezko meza.
19:00: kiliki eta erraldoiak eta mahai jokoak.
19:30: herri txikiteoa, fanfarreak alaituta.
23:00: gaujaia Usaetxe plazan “Fabula Rock” taldearekin.

■ LARUNBATA

10:00: diana eta erraldoi eta kilikien kalejira, Arrasateko txistulariekin batera.
10:30: atletismo probak Iturripeko pistan.
12:00-14:00: umeentzako haur jolastokia Usaetxe eta Larrea plazetan.
16:00: mus txapleketa.
16:00-19:00: Jon Azpillaga eta Joxe Agirre bertsolariak arituko dira Arimazuri plazan.
22:00: herri afaria Hilarion jatetxean.
23:00: gaujaia Udalpe plazan, “Continente” taldearekin.

■ IGANDEA

10:00: diana eta erraldioen eta kilikien kalejira, Arrasateko txistulariekin batera.
13:00: Aizkolariak Iturripen.
17:00: pailazoak Iturripen.
19:00-21:30: gaujaia Uriben, “Txinparta” taldearekin.
22:00: jaien azken pindarrak.

Kirola euskaraz programa

Irabazleak behar ditugu!

**EUSKARAZ DENOK
IRABAZTEN DUGU**

Deba arroko udalen Euskara eta Kirol zerbitzuak



Uribarri-Erguin jaiak

HERMI
SALOIA

ILE APAINDEGIA
MANIKURA

Erguin, 3 bis • ARRASATE
Tel.: 943 79 72 56

AMAIA

LORATEGIA

Usaetxe Plaza, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 36 / 943 79 46 75



HARATEGIA • URDAITEGIA

Erguin, 12
Tel.: 943 77 07 29

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu



Irailak 10, 11 eta 12

XARAMELA
taberna

Jai zoriontsuak

Loramendi, 1 (Arimazuri
Plaza) Tel.: 943 79 61 64

LEKIN
Ile apaindegia

Jubilatuentzako prezio bereziak
Moztu: 1.000 pta
Garbitu eta orraztu: 1.000 pta
Erguin, 15 - Behea
Tel.: 943 79 80 23

Egaskia

Ondo pasau!

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 00 34

GANBARA

Enmarkazioak Arte ederretako materiala
Laminak Arte lanak (margo lanak)

Jai zoriontsuak izan!!!

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37 • 20500 ARRASATE



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasalekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70



- FOTOKOPIAK •
- KOLORETAKO LASERRA •
- PLANOEN ERREPRODUKZIOA •
- PLANOAK TXIKITU ETA HANDITU •
- LIBURU JOSTEA •
- PLASTIFIKAZIOAK •

Isasi, 21 - Behea Tel.: 943 70 27 71
EIBAR

Erguin, 1 - Behea Tel.: 943 77 07 36
ARRASATE


BERGARA

① San Martin festak

San Martinak badatoz Bergara aldera. Izan ere, nahiz eta berez hilaren 16an izan, aste-buru honetan hasiko dira ospakizunak. Besteak beste, udal bandaren saioa, Agorrosinetik jaurtiko diren suziriak eta gauean Basakabik alaituko duen dantzaldia aipatu beharko lirakeke. Noski, ezin ahaztu irailaren 15eko haurren danborrada; bergarrek benetan gustuko izaten dute. Aurten, 200 inguru danborjolek parte hartuko dute.

Honetaz gain, urteroko azoka, hilaren 18an izango da San Martin plazan. Betiko moduan, inguruko baserritarren artean gazta, lora, fruitu eta barazkien lehiaketa izango da. Gauean, bestalde, Bergarako Orfeoiak kontzertua emango du, Bilboko Orkestra

Deba Garaia



Sinfonikoarekin batera.

ARETXABALETAKO

② Gipuzkoa Plaza badoa

Espero baino motelago, baina Gipuzkoa Plazako lanek hartu dute abiada berriro ere. Abuztuko azken astean plaza azpitik zihoan ur hodia puskatu eta horretxek atzeratu ditu lanak uste baino apura bat gehiago.

Orain plaza urbanizatze-ko lanak egiten ari dira. Horretarako, lur zaharra jaso eta saneatzen dabilta eta ur hodi berria sartzten. 26 aparkaleku, umeentzako jolastokia, eserlekuak, zuhaitzak eta iturri bat ere jarriko dituzte plazan. Guztira, 23 milioi pezeta pasatxoko aurrekontua dute lanek. Datorren urte hasierarako bukatzea espero da. Aretxabaletarrek eskertuko dute, zalantza izpirik gabe.

UDAL EUSKALTEGIAK

ZURE ETORKIZUNA EUSKARAZ
TU FUTURO EN EUSKERA



1999-2000 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE eta EGA. Ikastaro bereziak: merkataritza, sakontze, Arrasateko euskara...

Erritmoak

2 ordu egunero.
(Erritmo bereziak ere baditugu).

Beka sistema daukagu

Bulego ordutegia

Goizean: 10:00-13:00.
Arratsaldean: 15:00-19:00.

Matrikulaldia

Irailaren 1etik 15era.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2 • (Eskola Politeknikoaren ondoan) • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 • Faxa: 943 79 91 43

astea bi hitzetan

■ Parrokian, parra

Parrokia zaharbertitzeko batzorde eragileak azken orria kaleratu du, lanen diru kontuak zuritzeko.

Zaharbertitze lanak ia 590 milioi pta.ko kostua izan du. Kontua da, kostuak eta sarrerak parekatu ostean, ia zazpi milioi eta erdi pezetako defizita geratu dela. Orriak azaltzen duenez, parrokiak bere gain hartu du defizit hori.

Lanok koordinatu dituen batzordea bera desegin egin da, pozik eta eskerrak emanenez, jaso duten babes eta laguntzagatik.

■ Arrasate Irratia gurekin

Opor ostearekin jarraituz, bi hilabetez ixilik egon eta gero, Arrasate Irratiak asteazkenean piztu zituen apa-railuak.

Poliki-poliki hasi dira. Goizeko 09:00etatik 11:00ak arte izango dira irailean zehar. Bitartean, aurtengo programazio berria prestatzen ariko dira. Urriari egingo dute aurkezpena.

■ Alecop etorkizunerantz

Ikasle bazkideei oraindano baino garrantzi handiagoa ematea eta nazioartean hezkuntzaren hornikuntzan

ezinbestekoa bilakatzea. Horietxek dira Alecop-ek 2000. urterako dituen erronka nagusiak.

Ikasleei dagokienez, ikasketak eta lana tartekatzen egiten duten ahaleginari balio akademikoa eman nahi diote.

Eskolen eta unibertsitateen ekipamenduari dagokionez, berriz, ezagutzaren salmentarekin lotutako enpresa izatea dute helburu. Modu honetan, heziketa proiektu berriak egin eta munduan zehar zabaldu asmo dute. Ez dute hutsik egingo.

■ Urkuluko urak behera egin du

Hodei nahikotxo ikusi badugu ere, abuztua sikua izan da inguruotan. Horren adierazle da Urkulun urak egin duen beherakada. Uztailetik hona 16 puntutan jaitsi da.

Hala ere, egoera ez da kezkatzeko modukoa, oraingoz behintzat. Urtegiak bere edukieraren %73,70 du beteta.

Dena den, iazko iraileko datuekin alderatuz gero, aurtun 7 puntu beherago dagoela ikus daiteke. Iaz, edukieraren %80,6 zegoen beteta eta.



Zortzi urtean (Mondragon) unibertsitatea hirueleduna izatea lor dezakegula uste dut. Euskara, gaztelania eta ingelesa erabiliko dira. Nahitaezkoa da ikasleak, irakasleak eta egitura hirueledunak izatea. Zenbait urte barru euskara edo ingelesa ez jakitea *handicap* handia izango da gure gizartean. Internet bezalako lanabesak erabiltzen jakitea ere behar-beharrezkoa izango da, XXI mendeko alfabetizazioa izango da”.

JABIER RETEGI

El Pais

99.8.28

Dietetika eta Nutrizioa

Lorea Aramburu Dk.

- Medikuntzan eta Kirurgian Lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitatean Dietetikan eta Nutrizioan Diplomaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan Diplomaduna.

Tratatzen diren osasun arazoak:

- Kolesterola
- Loditasuna
- Diabetesa
- Azido urikoa
- Arteria hipertentsioa
- e. a...

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA

Erdiko kale, 22 - 1. • ARRASATE • Tel: 943 79 72 16

Maritxu egunean dotore-dotore joateko

Bañez doktorea, 1 • Tel.: 943 79 63 85 • ARRASATE

Jaiotzak

- Hodei Vicario Landaluze. Abuztuaren 8an.
- Endika Caballero Vitienes. Abuztuaren 17an.
- Andoni Francois Retegi Schiettekatte. Abuztuaren 23an.
- Ane Merino Olivenza. Abuztuaren 28an.
- Andoni Atxa Kortabarria. Irailaren 1ean.
- Amaia Arejolaleiba Etxabe. Irailaren 3an.
- Markel Mendez Marti. Irailaren 6an.

Ezkontzak

- Eduardo Rua-Figueroa Suarez eta Idoia Mendikute Ibañe. Zibilez. Abuztuaren 6an.
- Ignacio Medinabeitia Terrazas eta Anuska Aranzabal Agirrezabal. Elizaz. Irailaren 4an.

Hildakoak

- Isidoro Rodríguez Alvarez. 88 urte. Abuztuaren 20an.
- Juana Salinas Orena. 91 urte. Abuztuaren 22an.
- Emilio Ipiña Ormaetxea. 72 urte. Abuztuaren 30ean.
- Maria Ortega Español. 91 urte. Irailaren 1ean.
- Eugenia Zabaleta Mendikute. 82 urte. Irailaren 6an.
- Juan Maria Benitez Sanchez. 80 urte. Irailaren 7an.


Etxabe Martutenera eta Garitaonaindia Langraitzera

Goio Etxabe Ocañako espetetik Martutenera eta Joseba Garitaonaindia Madrildik Langraitzera ekarriko dituzte, Espainiako Gobernuak joan den asteartean hartutako erabakiaren ondorioz.

Erabaki horren arabera, Espainiako Espetxe Erakundeak 105 preso hurbilduko ditu: 27 Euskal Herriko presondegietara eta gainerakoak Soria, Burgos, Valladolid eta inguruetako espetxeetara.

Bai Josebak eta baita Goioek bederatzi urteko espetxe zigorra dute. Goioek dagoeneko bete ditu zigorraren hiru laurdenak.

Hauxe izan da ETAK iazko irailaren 16an su etena aldarrikatu zuenetik Espainiako Gobernuak presoengatik inguruko auzian hartu duen lehen era-



Joseba Garitaonaindia eta Goio Etxabe.

baki esanguratsua. Hurbilduko dituen 105 presoek gain, beste bost presori hirugarren gradua emango die. Tartean ez dago Arrasatekorik.

Aitor Etxabe Amnistiaren Aldeko Batzordeko kideak motz iritzi zion Espainiako Gobernuaren erabakiari eta salatu egin zuen 112 preso

daudela beren zigorraren hiru laurdenak beteta eta legea bete gero, kalean egon behar luke tenak. Salatu egin zuen, halaber, Enrique Letona, Pedro Guridi eta J. Ignacio Gaztañaga preso mondragoetarren egoera, osasunez oso gaizki dabiltzalako eta ez zaielako inongo soluziobiderik ematen.

Politikarien iritzia

Antonio Palacios (PP)

“Erabaki ona da. Bakebidea pizteko balio duen guztia da ona. Are gehiago gizarte osoaren babesa baldin badu. Pozten naiz Euskal Herrira ekarriko dituzten bi arrasatear horien familiengatik. Batzuek hau eta bestea esango dute, baina guk aurrera egingo dugu. Saiatuko gara gizartean dagoen tentsioa desegiten eta espero dut hau ez izatea gobernuak gai honetan hartuko duen azken erabakia”.

Ismael Gonzalez (PSOE)

“Pauso bat izan da, baina ez azkena. Poliki-poliki aurrerantz goaz, baina pauso gehiago behar dira preso guztiak ekartzea lortu arte, gero bakea lortzeko”.

Joseba Ugalde (EB)

“Pauso txikia da, lehendik emanda egon behar zuena. Baikor hartu behar da hale-re, baina aldi berean preso guztiak Euskal Herrira ekartzea eskatuz”.

Jose Mari Loiti (EAJ)

“Berandu hasi dira guk nahi genuena betetzen, baina ona da. Denok eskatu dugu kanpoan daudenak ekartzeko, eta honek izan behar du lehenengo pausoa beste denak ekartzeko”.

Xabier Zubizarreta (EH)

“Espainiako Gobernuaren maniobra maltzurra da. Euskal Herrira hurbiltzea tokatu zaienezako mesedegarria da. Baina Espainiako gobernuak hasi behar du

berak egindako legea betetzen, eta gatazka hau konpontzeko Euskal Herriak garbi adierazi duen borondate honi erantzuten, benetan elkarrizketa bide baten sartuta”.

Jose Mari Urizar (EA)

“Tapadera moduan egindako erabakia izan da. Hilaren 12an Udalerrien Biltzarra egin zela beteko da, eta horri indarra kentzeko maniobra izan da. Espainiako gobernuak benetan hori egiteko gogoia balu, urtebetean denbora sobera izan du hori eta gehiago egiteko. Borondatea erakutsi nahi badu, gainera, oraindik 400 eta piku preso daude Espainia aldean honantz ekartzeko”.

Etxe beharra dago Arrasaten

Arrasate txiki geratzen ari da hemengo bizilaguntzat. Halaxe dirudi, behintzat, zenbateko etxe eskaera dagoen ikusita.

Zerrajeran, adibidez, 312 etxebizitza egingo dituzte: 92 babes ofizialekoak eta 220 pribatuak. Etxebizitza hauek ez dira datorren urteko lehenengo hiruhilabetea arte hasiko. Hala ere, jende kopuru izugarriak eman du izena aspalditik.

Babes ofizialeko 92 etxebizitzetarako 346 eskaera jaso dira Eusko Jaurlaritzako Etxebide zerbitzuan azken bi urte hauetan.

Ostera, etxebizitza pribatuei dagokienez, Anboto Inmobiliarian eta Amenabar enpresako telefonoan eman daiteke izena. Handik jasotako datuen arabera, 220 etxebizitza pribatuetarako, 1.100 lagunek eman dute izena dagoeneko.



1.446 eskari egin dira Zerrajeran eraikiko diren etxeetarako.

IFAMEN BERTIN

Anboto Inmobiliariatik jakinarazi digutenez, gauza bera gertatzen omen da, gainera, gauregun IFAM fabrika dagoen lurretan egingo diren etxebizitzekin.

Izan ere, 860 lagunek eman dute izena Feliciano Aranzabal Musakolako A-

20 esparrura pasatu ondoren Legarre eta Musakola artean egin behar diren 130 etxebizitzetarako.

Etxe gosea dago Arrasaten. Kooperatiabak eta Mondragon Unibertsitatea gehiago hazitzen badira, gainera, arazo hau areagotu egin liteke datozen urteetan.

MCCk abenduan bukatuko du zientzia eta teknologia plana

Mondragon Kooperatiba Korporazioak datorren abenduan amaituko du datozen zortzi urteetarako prestatzen ari den zientzia eta teknologia plana. Hamar hilabete daramate plan horretan elkarlanean Mondragon Unibertsitatea, LKS-Aholkularitza, Ikerlan eta enpresetako ordezkariak.

Egitasmo honekin MCCk sakondu egin nahi du dagoeneko menperatzen dituen teknologietan eta aldi berean hasi etorkizuneko merkatuetan giltzarri izango direnetan. Huetako zenbait erabiltzen ari dira dagoeneko munduko merkatuetako aitzindariak. Egitasmo honek eragin zuzena izango du gure arteko goi ikasketetan eta baita hemen egiten den ikerkuntzan ere.

Opor ostean berriro hasi dira eskolan

Aste honetan batzuk eta datorren astean beste batzuk, poliki-poliki Arrasateko gazte txoenen ere heldu zaie lanean hasteko garaia eta eskolatan hasi dira berriro ere barreak, negarrak eta beste-lakoak entzuten.

Herri eskolak eta Instituta izan dira atea irekitzen

lehenak. Izan ere, asteartean hasi ziren Institutuko gazteak. Asteazkenean, berriz, San Andresekoen eta Erguinekoen txanda izan zen eta ostegunean Musakolakoena.

Hezibideko ikastolak, berriz, hilaren 13an ekingo diote irakaskuntzari. Azken hauetatik, hori bai, esan beha-

rra dago Umezaintza astartetik dagoela zabalik. Ohi bezala, lanean hasten diren gurasoen arabera.

HAURRAK POZIK

Askoren ustearen kontra, haur gehienak pozik omen doaz eskolara. Halaxe diote, behintzat, guk jasotako iritziek.

Lagunekin jolastearren doaz pozik batez ere, baina baita ikastearren ere.

Horren pozik ez doazena, noski, Umezaintzako haurtxo berriak dira. Gurasoengandik aldentzea hain da berria gehientzat, beldurrak negarra eragiten diela. Baina, hauek ere berehala ohituko dira.

M
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

Aramaio, Lore Jokoetan

Literatura eta batez ere poesia bultzatzeko sasoi batean egiten ziren lehiaketak dira Lore Jokoak. Araban behin bakarrik egin ziren:

1899an. Non, eta Aramaion. Ehun urte geroago, Aramaio Udalak berriz antolatu ditu, orduko ekitaldiak giltzarri hartuta.

Urriñan antolatu ziren lehenengo euskal Lore Jokoak, 1851. urtean. Hurrengo hamar urteetan ere Lapurdiko herrirka horretan izan zuten hitzordua, orduko idazle eta literatura zale ospetsuenek. Lehiaketara aurkeztutako obren artean festa giroan hautatzen zuten onena, eta sari garrantzitsuak izaten zirenez, jende askok hartzen zuen parte.

1864-1876 urtean bitartean Saran antolatu zituzten Lore Jokoak, eta gero urtero lekuz aldatzen joan ziren. Hegoaldeko lehenengoak Elizondon egin ziren, eta horien ostetik, beste hainbat herritakoak etorri ziren: Markina, Urnieta, Iurreta, Bera...

Ia mende erdia iraun zuten euskal Lore Jokoek, eta lehe-

nago hila eta baztertua zegoen euskalzaletasunaren pizgarri izan ziren. Bertsolaritzatik olerkaritzarako bidea ere urratu zuten, eta literaturaren aitzakian, Pirinio mendien bi aldeetako euskaldunen arteko harremanak estutzeko ere balio izan zuten.

Hala ere, Anton Abbadia izan zen, duda izpirik gabe, Lore Jokoen eragile nagusia, bera izan baitzen lehiaketa horien sustatzaile.

ANTON ABBADIA

Zientzilaria eta euskaltzalea zuberarra, fisika eta geografia ikasketak egin zituen Parisen. Munduko hainbat leku bisitatu zituen gero, geografia eta astronomia ikerketak egiteko: Frantziako Britainia, Ingalaterra, Irlanda, Eskozia, Brasil, Etiopia... Euskal Herrira itzulita,

laborategi bat eraikiarazi zuen Hendaian eta hantxe eratu zuen behategi astronomikoa ere. Gerora Abbadia gaztelua bilakatu zen, Abbadiak argitaratutako zientzia lanengatik sona hartu zuena.

Euskararekiko zaletasuna, berriz, aitarengandik zetorkion Antoni, Zuberoako Urrustoikoa baitzuen aita. Agustin Chaorekin batera ere idatzi zituen zenbait lan, hizkuntzaren teknika eta euskal obren azterketa eginez. Horietatik ezagunena, "Études grammaticales sur la langue basque" izenekoa, 1836an argitaratu zuen.

KOPLARIEN GUDUAK

"Concours de Poésie" edo "Koplarien guduak" ere hots egiten zitzairen Lore Jokoei. Poesia bultzatzeko lehiaketak izan arren, sasoiko euskal ohi-turak eta herri aldarrikapenak plazaratzeko ere oso ekimen aproposak bilakatu ziren laster asko.

"Lore Joko" hitzaren jatorria aspaldikoa da, hala ere. Horixe adierazi digu Amaia Axpek, Aramaio Kultura batzordeko kideak eta aurtengo euskal jaien antolakuntza lanetan ibili denak: "Frantziako Britainian aspalditik egiten ziren poesia lehiaketa batzuk, sarizat lore bat zutenak. Antza denez, Frantziaren Erdi Aroan Flora landareen jainkosa zen, eta jaiegun hori ospatzeko poesiak egiten ziren. Anton Abbadiak



Artzain txakurren txapelketa, euskal kulturaren b

hortik hartu zuen izena".

Okzitaniako Tolosan ere egiten ziren Lore Jokoak, poesia proventzala bultzatzeko. 1649. urtean Luis XIV.ak "Akademia" titulua eman zien, eta orduz geroztik urtero egin izan dira. Katalunian ere XIV. eta XIV. gizaldien bitartean



Zazpi probintzietako euskaldunak batu dira Lore Jokoetan.



...n beste adierazpen bat.

egin ziren, eta XIX. mendean berpiztu eta Iberiar penintsula osora hedatu ziren.

Poesia sariketa izaten zen euskal jaien ardatza ere, baina beste zenbait txapelketa eta froga ere antolatzen ziren: euskal dantzak, dultzainero eta txistularien batzaldiak, ber-

EUSKAL JAIEN EGITARAU

■ IRAILAK 10, OSTIRALA

22:00 "Poesiaren Alde, Poesiaren Kontra" errezitaldia parkean.

■ IRAILAK 11, LARUNBATA:

Txistularien eguna.

■ IRAILAK 18, LARUNBATA:

Euskal Herriko Bertsolari Eskolen bilkura.

22:00 Bertso saioa, pilotalekuan.

24:00 Bertso zahar eta berrien kantaldi-karaokea, Iturrieta sagardotegian.

■ IRAILAK 19, IGANDEA

14:00 Bertsolarien bazkaria eta agurra.

■ IRAILAK 24, 25:

Euskaltzaindiaren IV. Jagon jardunaldiak.

■ IRAILAK 26, IGANDEA

14:30 Herri bazkaria, kiroldegian.

17:00 Aramaioko trikitilari eskolako emanaldia eta Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Milan Telleria bertsolariak.

18:00 "Kulki" haur parkea: zankoak, trontzalariak, laixak...

■ URRIAK 2, LARUNBATA


22:30 1. mailako pilota partidak.

tsolarien jardunak eta saioak, pilota txapelketak, abelgorri eta zurdabereen erakusketa... ekitaldi asko.

1876tik aurrera, ordea, kutsu berria eskuratu zuten. Bigarren karlista gerraren ostean foruak galduta, euskal mugimendu ideologikoaren isla bilakatu ziren, eta herriaren adierazpenak zazpi probintzietara hedatzeko asmoa zuten.

1899AN ARAMAION

1897an hil zen Anton Abbadia. Haren alargun Virginia Vicenta de Saint-Bonnetek, ordea, bete egin zuen senarraren ametsa: Euskal jaiak eta euskaldunon aldarrikapenak zazpi probintzietara zabaltzea. Izan ere, bi urte geroago Aramaion egin ziren Koplarien guduak, eta Virginiak bere poltsikotik ordaindu zituen gastu eta sari guztiak, aurre-



Antoine Thompson Abbadia.

ko urteetan senarrak egindako eran. Resurrección Maria Azkue euskaltzale ospetsuak izan zuen jaialdi hura antolatzeko ardura, Abbadiaren alargunak hala eskatuta, 1899ko irailaren 9an eta 10ean. Euskal jaien hazia Araban ere erein zen, beraz, eta euskararen magalean zazpi probintzietako euskaldunak batu, Antonen xedea betez: "Zazpiak Bat".

HERRIKO SEME KUTTUN

Orain ehun urteko Koplarien Guduak erreferentziazat hartuta, hainbat ekitaldi antolatu ditu irail osorako Aramaioko Udalak. Irailaren 26an, baina, herria ezagutzera eman duten aramaioarrak "Herriko seme kuttun" izendatuko dituzte Udaletxeko batzar aretoan.

Bost aramaioarren izango dute ohore hori: Bilbon bizi den Pedro Pujana apaizak eta ohorezko euskaltzainak, Sabin Salaberri musika konposagile eta zuzendariak, Jesus Mari Elejalde apaizak, Bilbon bizi den Patxi Uribarren karmeldarrak eta Josemari Velez de Mendizabal idazle eta euskaltzain urgazleak. ■

Maidar Osa



FAMILIA GALANTA

Landako zelaietan 150 inguru extremadurak elkartu ziren Extremadura Eguna ospatzera. Corazon de Encina elkarteak antolatu zuen. Ospakizunak goizean egin ziren. Bazkalostea, berriz, lasai igaro zuten. Biao ederrak egin ziren. Ez dago gaizki, aizue!

IRAILA ONDO HASTEKO...


Horra, Gatzaga aldean zein giro zegoen pasa den larunbatean!! Herriko jaiak zirela eta, herri bazkaria izan zuten. Fanfarrea alai asko ibili zen eta bazterrak ere ondo animatu zituen. Oporrak bukatu direla ahazteko modu ona, ezta?



GOIKOBALU: NAZIOARTEKO ABESBATZA



Abuztuan Goikobaluko lau kide Donostiako Orfeoari laguntzen izan ziren Salzburgon. Hector Berliozen eta Philip Glassen operak interpretatu zituzten, arrakasta handiz. Maider Ruiz, Juan Bautista Agirre, Mikel Arregi eta Anuska Ezkurra mondragoetarrak izan dira artistak. Zorionak!



HAUEK BAI TXAKURRAK, HAUEK!

Larunbatean Arabako Artzain Txakurren Txapelketa jokatu zen Aramaioko Salasango zelaian. Zazpi partaide izan ziren guztira: Aureliano Llarena eta *Txiki*, Jose Mari Agirre eta *Lagun*, Vicente Urkijo eta *Ronda* eta Santi Etxezarreta eta *Txato*. Txapeldunak, berriz, Jose Mari Agirre eta bere txakur *Lagun* izan ziren. Euskadiko Txapelketa Garain jokatu da, hilaren 12an.

Maritxu Kajoi eskaintza berezia



SOLARIUM-A

Adi! Irailaren 13tik urriaren 13ra.
Maritxu egunean politagoa ibiliko zara, oporretan hartutako kolorea gordetzen baduzu.

6 saio + 1 oparían =
6.000 pta

Eta gainera, gure Estetika Zerbitzuak eskaintzen dizkizu:

- Aurpegi eta gorputzerako tratamendu bereziak.
- Depilazioa argizari bero nahiz hotzarekin, tratamendu progresiboan.
- Depilazio elektrikoa, Blend sistemarekin.
- Makilajea, manikura, betileen permanentea eta tintea.
- Ezpan, begi eta bekainen makilajea, permanente eta guzti.
- Kontsulta medikoa eta terapia bereziak.



AMAGARA

**Erdiko Kale 54, etxabea
ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09**

JORGE FERNANDEZ (MISTER EUSKADI)

“Txirripaz hasi nintzen

27 urte bete berri ditu. 1,90 m. garai da, beltzarana eta beti irribartsu dago. Arrasatear hau Jorge Fernandez da, aurtengo Mister Euskadi. Azkenengo sei urteetan Gasteizen bizi da. Soin Hezkuntza ikasi zuen eta Tau Basketon ari zela, saskibaloia laga behar izan zuen min hartu zuela eta. Orain soinketa irakasle izateari utzi dio modelo lanetan aritzeko eta urriaren 8an Mister España lehia- ketara aurkezteko.

— Zer da zuretzat Mister Euskadi izendapena?

— Irabaziz gero sor zitezkeen aukerak aprobetxatzearen aurkeztu nintzen. Mister titulua ez da ezer. Norbaitek irabazi behar duelako egiten duten ezagutza bat da. Euskal Herria ordezkatzeko dut modaren arloan. Baina, urrats bat baino ez da. Hainbat lan sortu zaizkit izendatu nindutenetik. Esaterako, Cibelesko

desfilera noa Mister Euskaldi naizelako. Mister España joango naiz eta irabaziz gero, horren kontura bizi ahal izango naiz. Norberaren irudia saltzeko modu bat da hau.

— Zer esan zizun amak?

— Aurkeztu behar nintzela esan nionean, aurrera egitera bultzatu ninduen. Irabazi nuenen ni baino gusturako zegoen. Ama guztiak bezala, semea gustura badago, bera ere bai.

— Jende askok gelditzen zaitu kalean?

— Egia esan, ez nuen horretan pentsatu, baina Gasteizko jaietan atera nintzenen jende asko gerturatu zitzaidan zoriontzera. Batzuetan behatua sentitzen naiz, baina horrela da.

— Egia da neskak lotsatzen direla eta ez zaizkizula hurbiltzen?

— Beno, jaietan jende

asko hurbildu zitzaidan... Gainera, askotan konturatzen naiz nitaz ari direla eta besterik gabe ez dira ezer esatera ausartzen, baina pertsona bakoitzaren arbera doa. Neskagunik ez daukadala eta, zerbait esan behar.

— Baina nolako da zure ametsetako neska?


— Ez daukat horrelakorik. Edertasuna oso subjektiboa da.

— Modelo izatea lagun baten bitartez erabaki omen zenuen?

— Bai. Saskibaloian min hartu baino

lehen honetan aritu behar nintzela esan balidate, ez nukeen sinistu ere egingo, baina... Belauna apurtu nuen eta gimnasioan hasi nintzen gaiberri-tzen. Neska batek bere lagun baten agentziak mutiak behar zituela eta... Neuk, ordea, hasieran behintzat belauna konpondu nahi nuen, saskibaloian segitzeko, baina ez nintzen sendatu. Azkenean, ikasten bakarrik aritzeko gogorik ez nuela eta, Joseba Valles argazkilaria arrasatearrak argazki batzuk egin zizkidan agentziara bidaltzeko. Berehala hasi nintzen modelo bezala lanean.

“Oinarrizko hiru gauza daude:
ondo jan, gimnasioa edo
kirola eta atsedena”



n modelo”

— **Zertan egin duzu lan?**
 — Modelo bezala desfile batean hasi nintzen. Gero telebistarako iragarkiak, publizitate katalogoak... Denetik egin dut. Orain, esaterako, aktore lana ere egingo dut. ETBren *El Señorío de Larrea* telesailean rol txikitxo bat eman didate. Falcon Crest, baina hemen!

— **Antzezle lanean arituko zara, beraz?**

— Beno, oraingoz saiatu egingo naiz, baina atsegin ez bazaie, hurrengo kapituluak akatu egingo naute eta kito. Prestatu egin behar zara zeurea ez den zerbait egiteko. Madrilen antzezpen ikastaroren bat egiteko asmoa dut.

— **Egia da mister lehiaketetan lehia handia dagoela?**

— Hori kanpoan esaten den zerbait da. Baina ez da horrela. Neuk ere ez nuen sinisten, baina kontuan izan horrelako gauza batera aurkezten dena jende irekia dela, bestela ez zara ausartzen. Giro polita egoten da. Hiru egun egin genituen elkarrekin eta oso ondo pasatu genuen. Inoiz elkarrekin ateratzeko ere geratu ginen.

— **Emakumezkoen modelo lana eta gizezkoena ezberdina da?**

— Mutilak oraindik oso urrin gaude arlo horretan. Emakumeak dira nagusi. Adibide bat jartzeagatik, Miss Euskadi zuzenean eskaini zen

telebistan, gizezkoena ez.

— **Zer espero duzu Mister España lehiaketatik?**

— Joango naiz, Mister Euskadi izanik joan beharra dudalako. Baina ez noa irabaziko dudala pentsatuz. Ahalik eta ondoen prestatua joaten saiatuko naiz eta ikusi egin behar.

— **Nola prestatzen zara horrelako lehiaketa batera joateko?**

— Oinarrizko hiru gauza daude: jana, gimnasioa edo kirola eta atsedena. Hiru-retako batek kale egiten baldin badu, gaizki. Gainera, Soin Hezkuntza ikasi dut eta betidanik egin dut kirola, beraz zaintzea ez da niretzat aparteko ahalegina. Tau Greseko sendagileak ere laguntzen dit.

— **Galtzazpiko motzak ala luzeak?**

— Luzeak.

— **Zer duzu zeure iruditik gustuko?**

— Nire itxuratik ez dut ezer gustuko, baina aldi berean gustura nago. Neurri ona dut lan honetarako eta esan didatenez, gorputz orekatua daukat. Izakerari dagokionez, irekia naiz eta ez naiz erraz haserretzen.

— **Itzuliko zinateke saskibaloira?**

— Berriz ere gora heltzeko aukera izango banu, bai. Baina bizitzan zikloak daude eta hori amaitu zen. Orain beste gauza batean ari naiz. ■

EMAKUMEON TXOKOA

Emakume Sailak antolatutako ikastaroak

ZAHARTZEN IKASIAZ IKASTAROA

hasiera: irailak 23
 astean behin, 12 saio
 ordutegia: 16:30 - 18:30, ostegunetan
 emaila: Pepa Bojó

HAZKUNDE PERTSONALA IKASTAROA

hasiera: irailak 21
 astean behin, 12 saio
 ordutegia: 16:30 - 18:30, asteartetan
 emaila: Pepa Bojó

AUTODEFENTSA IKASTAROA

noiz: irailak 18 eta 19
 ordutegia: larunbata goiz eta arratsalde,
 eta igande goizez.
 emaila: Maite Monroy.

ARGIBIDEAK ETA IZEN EMATEA ARRASATEKO UDALEKO EMAKUME SAILEAN Herriko Plazan z/g edo 943 79 41 39 telefonoan

Baita ere...

■ Sexualitate Bulegoa

Sexualitate Informazio eta Orientabide Zerbitzua
 Garibai Etxean, astelehenetan 18:00- 20:00,
 eta ostegunetan 1:30- 17:30
 Telefonoa: 943 79 80 10

■ LANGAI Zerbitzua

Lana bilatzeko bidea
 Telefonoa: 943 79 09 00 (Marga Garmendia)

■ Helduentzako Hezkuntza Iraunkorreko (EPA) Zentrua

1999-2000 ikasturterako
 matrikula epea zabalik
 Telefonoa: 943 77 11 72



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !


**Matrikula
Epea Zabalik**

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.



AHIZKE S. COOP
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Faxa: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http:www.cim-idiomas.com
Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Faxa: 945 15 01 56
E-mail: gasteizbaibay@cim-idiomas.com
Zubieta, 26 - 20007 DONOSTIA (GIPUZKOA)
Tel.: 639 71 98 58
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http:www.cim-idiomas.com



- Norberak etxea margotzeko pinturak
- Denetik margo-apainketarako
- Apainketa profesionala



GIDE COLOR

MILAKA KOLORE EGITEN DITUGU MOMENTUAN



Luis, zuen zerbitzura



Tel.: 943 76 52 42. Faxa: 943 76 56 17 • Amillaga, 5 (Renault-en ondoan)
Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15 • Larunbatetan: 09:30-13:00

IBD: enpresa txikiak nazioarteratzeko sarea

MCCk eta Eusko Jaurlaritzak negozio zentro bat sortu dute Donostian, Miramon ikertegian, enpresa txiki eta erdi mailakoei nazioarteratzen laguntzeko. Zentroaren izena luzea da: *International Business Development Commercial Global Network* (IBD). Hiru aholkularirekin hasi da.

90 milioiko kapital sozialarekin hasi da. Erdia MCCk berak jarri du eta beste erdia Eusko Jaurlaritzak, SPRI agintziaren bitartez. Orain diru publikoaren laguntza badu ere, urte batzuk barru erabat pribatua izatea nahiko lukete sortzaileek.

Enpresa txiki eta erdi mailakoak —*pymes* deritzotena— enpresa guztien %70 dira EAEn. Hori dela eta ekimen hau, horietako askok ez



Jesus Mari Herrasti.

baitute dirurik edo ausardia-rik bakarrik atzerrira irteteko. Hala ere, ekimen hau irekita dago kooperatiba ez diren enpresei eta Euskaditik kanpokoei.

Bai MCC eta baita Eusko Jaurlaritzak ere *profit center* moduan ikusten dute IBD, hau da, irabaziak sortuko dituen gune bezala. Bere helburua izango da enpresa txikiek atzerrian egin behar dituzten eros-

ketak, bategiteak eta enpresa partekatuak ahalbidetzea.

Bozeramaileek adierazi dutenez, ez dute orduka kobratzeko asmorik, beste aholkularitza askok bezala, baizik eta proiektuen errentagarritasun mailaren arabera.

Jesus Mari Herrasti, MCCko nazioarteko estrategiaren arduraduna izango da zentro berriko lehendakaria. Zuzendari orokorra, berriz, Iñaki Badiola donostiarra.

Antza denez, urte hasieran hasi zen egosten proiektu hau, orduan Aldatu Trade izenarekin. Ondoren Arthur Andersen aholkularitza sartu zen zentroaren nondik norakoak zehazteko eta IBD sortu zen, gaurko izenarekin.

Dagoeneko hamar proiektu ditu mahai gainean IBDk.

TXAPELA BURUAN, SALDU MUNDUAN

- **Taldea:** International Business Development Commercial Global Network (IBD).
- **Kapitala:** 90 milioi, MCCk eta Eusko Jaurlaritzak erdibana jarriak.
- **Langileak:** 3 aholkulari.
- **Arduradun nagusiak:** JM Herrasti eta Iñaki Badiola.
- **Helburuak:** atzerrian egin beharreko erosketak, bategiteak eta enpresa partekatuak ahalbidetzea. IBDk akzioak har ditzake proiektu horietan.



**MARITXU
KAJOI** rako
soinekoa prestatuta
daukazu?

SIKOL en

- **Festaldietarako soinekoak.**
- **Ehunak.**
- **Neurrira eginiko jantziak.**
- **Zorroak.**
- **Osagarriak.**

ZATOZ ETA PROBATU!

Patroi mozketa eta neurrira egindako soinekoak

Olarte, 31 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 32

Kart gidaria

ANDER KORKUERA

“Hamar lasterketa izango ditugu eta dagoeneko bost irabazi ditut”

— Joan den igandean berriro irabazi zenuen?

— Zizurkilen izan zen. Aurtengo bosgarren garaipena izan zen. Hamar lasterketa izango ditugu eta dagoeneko bost irabazi ditut.

— Txapelketa irabaziko duzu, beraz?

— Hurrengo lasterketa urrian izango dut, Olaberriar. Baina orain bezala segituz gero, lehenengoa izango naiz 125 zentrimetro kubikoetan.

— Euskal Herriko txapelketatik Espainiakora?

— Bai, San Migeletan Bartzelonan jokatu da txapelketa.

— Jaraman ere izan omen zara?

— Bai, formulako autoekin proba bat egin nuen. Horri esker, Bartzelonara joango naiz 28an beste proba bat egitera. Elf Campus probak dira eta Mont Melon sailkatuz gero, formula auto batekin aritzeko aukera izango nuke urtebeterako. Ander Vilariño ere hortik atera zen. Dena dela, ikusi egin behar.

— Garestia da kirol hau?

— Neuk babesleak lortu nituen eta eskerrak horri. Noizean behin diru sariren bat jasotzen dut, baina bestela norberak ordaindu behar izaten ditu autoaren gastuak.

— Zenbateko lastertasuna hartzen du kart auto batek?

— 120 km/orduko hartzen dute eta batzuetan 200era ere heltzen dira. Dena dela, lastertasuna baino gehiago abilezia behar da.

— Jarraitzaile asko duzue?

— Jendea joaten da, gainera nire lagunak ere joaten dira eta giro polita jartzen dute.



Milurte berriant

Mondrak aurten lehen mailako errejonalean jokatu du. Juanina Garai dute entrenatzaile eta taldea ia guztiz berria da. Iaz



Iban Dasilva

(19 urte)

atezaina

Iaz ere Mondran aritu zen.



Arkaitz Gainzarain

(19 urte)

atezaina

Gazte mailatik igo da.



Andoni Solupe

(19 urte)

erdilaria

Gazte mailatik igo da.



Andoni Azpiazu

(19 urte)

erdilaria

Gazte mailatik igo da.



Ekain Garin

(18 urte)

aurrelaria

Gazte mailatik igo da.



Ander Lasagabaster

(18 urte)

aurrelaria

Gazte mailatik igo da.

n futbol taldea ere berria

ko sei jokalaria baino ez daude. Beste guztiak gazte mailatik igo dira. Hiru bergarar ere ekarri dituzte Mondrara. Dena den, orain-

dik beste bi jokalariri ere egingo diete fitxa teknikoak. Laster jakingo dugu horren berri.



Edoardo Gartzia
(19 urte)
atzelaria

Gazte mailatik igo da.



Aitor Laskurain
(19 urte)
atzelaria

Gazte mailatik igo da.



Oier Loiola
(19 urte)
atzelaria

Bergarako gazte mailako taldetik igo da.



Juan Sanchez
(20 urte)
atzelaria

Iaz ere Mondran aritu zen.



Argider Arana
(21 urte)
atzelaria

Iaz ere Mondran aritu zen.



Iñaki Garai
(19 urte)
erdilaria

Gazte mailatik igo da.



Xabier Mondragon
(19 urte)
erdilaria

Iaz ere Mondran aritu zen.



Iñigo Arkauz
(20 urte)
erdilaria

Iaz ere Mondran aritu zen.



Ander Bereziartua
(20 urte)
erdilaria

Iaz ere Mondran aritu zen.



Jon Muruamendiaraz
(19 urte)
aurrelaria

Gazte mailatik igo da.



Koldo Balanzategi
(18 urte)
aurrelaria

Gazte mailatik igo da.



Unai Rollan
(19 urte)
aurrelaria

Bergarako gazte mailako taldetik igo da.



Juanina Garai
entrenatzailea.



Honorio Izquierdo
(24 urte)
fisioterapeuta.

Unai Arana
(19 urte)
erdilaria
Bergarako gazte mailatik igo da

Jose Vazquez
ordezkaria

Irabazleak behar ditugu

Joan den astelehenean aurkeztu zen "Irabazleak behar ditugu", Kirola Euskaraz programaren kanpaina berria. Aurtengo kanpainaren ardatz nagusia da jendea ohartaraztea kirolean ere euskara erabiltzeko. Asmo hori indartzeko, irailaren 19a arte publizitate kanpaina egingo da Deba bailaran. Gero ikastaroak hasiko dira entrenatzaileak, begiraleak eta soinketa irakasleak prestatzeko eta kirol materiala argitaratzeko. Izan ere, Kirola Euskaraz programak Euskara eta Kirol zerbitzuek sortu zuten, euskararen normalizazioa bultzatzeko kirol eremuan.

Informazio gehiago behar



Kirola Euskaraz proiektuaren kanpaina berriaren aurkezpena.

duenak Bergarako Udal Kirol Zerbitzura jo dezake edo 943 77 91 67 zenbakira.

Asteleheneko aurkezpenean, Eibarren, Xabier Zubizarreta (Arrasateko alkatea),

Lorea Leanizbarrutia (Foru Aldundiko Euskara zuzendaria), Felix Iñurrategi eta Naiara Larrea kirolariak eta Iñaki Ugarteburu kirol teknikaria izan ziren.

Jon del Rio, lider Euskalduna trofeoan

Joan den ostirala ezker Jon del Rio, Born Jay taldeko txirrindularia lider da Euskalduna Sariko sailkapenean. Del Rio parte hartu duen azkenengo lasterketa ia gehienetan lehenengo hamarren artean sartu da. Azkenengo aldiz Gatzagan izan zen. Igandean jokatu zen afizionatu mailako lasterketa han. Del Rio laugarren izan zen. Irabazleak, berriz, Olarra-Erkoreka taldeko bi txirrindulari izan ziren. Ruben Diaz de Cerio eta Lander Euba. Biak esku-



Jon del Rio tolosarra, Gatzagan.

tik helduta helmugaratu ziren. Larunbatean Elorrión izan ziren. Vazquez aurrean ibili zen, baina azkenean ezin izan zuen. Del Rio seigarren izan zen.

GOIERRIKO ITZULIA

Gaur bertan ekin diote Born Jay taldeko txirrindulariek Gorrieko itzulari. Jon del Rio, Oskar Askasibar, Jabier de Migel, Jabier Urmeneta, Angel Vazquez, David Sojo eta Josu Mendizabal, arituko dira Goierriko itzulian igandea bitartean.

Ardi txakur txapelketa

Oarbeako zelaietan, Garain, jokatu da aurten Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa. Igandean izango da eta Jesus Mari Plazaola ere hantxe izango da. *Artzai* izango du alboan, iazko titulua defendatzeko asmotan. Hamar lehiakide izango ditu Jesus Marik. Horien artean Patxi Etxebarria, bost txapelketa irabazi dituen Amairko artzaina. Lehia bizia, beraz, Garaikoa.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ardi txakurrak arituko dira lehia. Hiru proba egin beharko dituzte guztiek. Lehenengoa obedientzia proba izango da. Segidan arditalde elkartzea lortu beharko dute eta ostean kanpora atera. Dena erlojuaren aurka. Azkarrena, txapelduna izango da.



Artzai, JM Plazaolaren txakurra.



**ANTZUOLAKO
UDALA**

LANPOSTU ESKAINTZA

Antzuolako Udalak aldi baterako langilea hautatu behar du, lehiaketa bidez, amatasunagatiko baja dela eta, gizarte langilea ordezkatzeko.

Eskariak eta dokumentazioa aurkezteko epea: irailak 15.
Oinarriak: abuztuaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
Argibideak: Antzuolako Udaletxean, tel.: 943 76 62 46

Antzuolan, 1999ko irailaren 9an. ALKATEA.

JOSLE MERTZERIA

MARITXU tarako
oihalak eta
joskintza
Jantzi konponketak



Merkatu plaza 8. saltokia.
Tel: 943 77 07 83

sofa leku

a. eme... interiores

**centro
hogar
MUEBLES**

grupo

Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92



Ikasturtea

99-2000

MATRIKULA ZABALIK

Oinarriko Ofimatika

Office '97 Inguruan

Diseinu eta Komunikazio

Grafikoa

Fotokonpozizioa:

Adobe Photoshop

Komunikazio eta sare

lokalak: Windows NT

Programazio Informatikoa

Kontabilitate eta Komertzial

Gestio mekanizatua

Zerga Gestioa PYMES-etan

Giza Baliabideen

Administrazioa

Mekanografia ordenagailuz

Laguntza klaseak

Planoen Interpretazioa

Kalitatearen Gestioa

Internet

Administrazio Laguntzailea

BERRIAK

Hizkuntzak (multimediaz)

Musika Informatika bidez

(Midi Sistema)

Ekipo Informatikoen

mantenu eta konpontzea

Larunbat goizetan
eskolak emateko aukera

LANGAI Euskal Lan
Zerbitzura Atxikia

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-EN HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1^a
20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33
Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@tsai.es

Galartaren margolanak Zarautzen


Julio Galarta margolari arrasatearraren lanak Zarauzko Kayua erakusketa aretoan daude ikusgai. Hogeita hamar inguru lan eraman ditu Galartak Zarautzera. Gure inguruko paisajeei buruzkoak dira guztiak: Udala auzoa, Arrasateko zenbait toki, Oñati, Gatzaga eta Landa urtegiaren inguruko bazterrak...

Dena dela, hau ez da Galartaren margolanak Zarautzen erakutsiko diren lehenengo aldia. Kayua aretoan 1996an egin zuen lehenengo erakusketa, eta orduz geroztik, urtero joan izan da. Margolari arrasatearra pozik dago, gainera, jendeak bere lanekiko erakusten duen arretarekin: "Jende asko joaten da Kayuara. Margolanak erakutsiko ditudan laugarren urtea da hau, eta hori ere antzematen da, jendeak dagoeneko eza gutzen bainau".

ABENDUAN LIZARRARA

Abenduan, berriz, Nafarroa aldeko jendeak izango ditu eskura Galartaren margolanak. Izan ere, Lizarran egingo du erakusketa, Logroño eta Nafarroako herrixketako hainbat margolan ditu etxean eta: "Aspaldiko urteetatik pilatuta dauzkadan lanak dira. Kolore gorri eta hori dira nagusi beraietan. Zarautzen erakusgai daudenek, aldiz, kolore berdeska dute gehien bat".

Julio Galartak hogeita bost margolan inguru eramango ditu Lizarrara.



Julio Galarta margolari arrasatearra.

MARRAZKI ETA MARGO IKASTAROA

1999-2000. ikasturterako marrazki eta pintura ikastaroa antolatu du Arrasateko Kultura Sailak. Ikastaroa Monterron etxeko ganbaran emango da, irailaren 20an hasita. Amaia Bengoa Arte Ederretan lizentziatuak emango ditu eskolak, eta talde bakoitzean 20 pertsona sartuko dira, gehien jota. Eskolen ordutegia honokoa izango da: aste-gunetan 17:00etatik 20:00eta-

ra eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

Ikastaro honetan izena eman nahi duenak Monterrongo kultura etxera jo beharko du, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean, irailaren 13tik 17ra bitartean. Izen ematea 15.300 pezeta kostako da, eta irailaren hasi eta ekaina arte emango dira eskolak. Argibide gehiago jaso nahi duenak 943 77 01 05 telefonora dei dezake.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20

Ipek
Denda
D

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

ARANTZA OZAETA (POESIAREN ALDE, POESIAREN KONTRA)

“Poesiaren helburua hunkitzea da”

Irailaren 10ean “Poesiaren Alde, Poesiaren Kontra” poesia errezitaldia izango Aramaion, Lore Jokoak ospatzeko antolatu dituzten ekitaldien barne. Arantza Ozaetak eman digu horren berri. Arantzak Irakasle ikasketak eta Euskal Filologia egin ditu, eta betidanik izan du irakurtzeko zaletasuna. Beharbada horregatik du hain gustuko poesia.

— Nola hasi zinen ekimen honetan?

— Gasteizen zenbait euskal idazleren lagun egin nintzen, eta literaturaz asko hitz egiten genuen. Poemak irakurtzen hasi ginen gero, eta horren haritik etorri da “Poesiaren Alde, Poesiaren Kontra” emankizuna. Dena dela, batez ere Iban Zalduak eta Gerardo Markuletak izan dute dialektika honen ideia. Kirmen Uribek, berriz, itzuli egin ditu zenbait poesia. Honen aurretik, ordea, “Poesiarik Irakurtzen Ez Dutenentzako Poesia” emanaldiarekin aritzen ginen.

— Ekitaldi asko egin dituzue?

— Lehenengo ekitaldia otsailean izan zen, Gasteizko fakultatean. Otsailaren bukaeran, berriz, Gasteizko Florida kultura etxean eskaini genuen, eta martxoaren 6an Parralen. Bilbon, Elgetan, Ermuan, Miarrizten eta Iruñean ere izan gara.

— Zergatik “Poesiaren Alde, Poesiaren Kontra” izenburua?

— Badirudi poesia zaharkiturik dagoela. Gaur egun, posmodernismoaren garaian, prosak funtzionatzen omen du. Guk ez dugu pentsatzen poesia etorkizunez beteriko arma bat denik, baina ezta modaz pasata



dagoenik ere. Poesia betidanik izan den generoa da; gizakiaren barneko lurraldeak adierazteko eta hizkuntzaren ederra erakusteko modua. Guk ez dugu erabateko didaktismoan erori nahi, baina poesiaren dosi txiki bat emango diogu gure hartzaileari.

— Zein da zuen helburua?

— Helburua barre egitea eta barrena mugitzea da. Gorputzaren gaindi dauden dimentsioetara heltzeko bidea izan daiteke poesia; musika, antzerkia, zinema... izan daitezkeen moduan.

— Zenbat pertsonak diharduzue ekimen honetan?

— Pili Kaltzada, Kirmen Uribe, Iban Zaldua, Gerardo Markuleta eta nik.

— Nola bizi duzue poesia?

— Komunikatzeko beste modu bat da, gauzak modu hunkigarrian esateko modua. Poesiaren helburua hunkitzea da, sentsazioak eragitea. Bizitza bidaia bat baldin bada, bidaia horretan zergatik ez bidailagun literatura?

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• 1999-2000 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko diru laguntzak. Epea: urriak 15.

• 1999-2000 ikasturtean zehar unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak batzuk egiteko izaera orokorreko diru laguntzak. Epea: urriak 29.

■ LANA

• Txatxilipurdik gazte-eragile bat behar du. Euskara maila, gazteekin lan esperientzia, ikasketak eta begirale titulua izatea kontuan hartuko da. Epea: irailak 14.

• Antzuolako Udalak aldi baterako gizarte langile bat behar du. Epea: irailak 15.

■ IKASTAROAK

• Gipuzkoako Gorren Elkar-teak zeinu-hizkuntza ikastaro bat antolatu du Donostian. Epea: irailak 20.

• Urtxintxa Elkar-teak urteroko ikastaroak antolatu ditu: astialdiko begiralea, astialdiko zuzendaria, ludotekak, gazte lekuak, malabare lantegia, euskara zuzpertzalea, euskal jolasak, adierazpen lantegia, heziketa berezia, hezkidetzeta, drogari aurre hartzea eta 3. adinerako eragileak. Ikastaroak Donostian egingo dira. Hainbat egun.

■ LEHIAKETAK

• Emakumeak kontari VI. Literatura Lehiaketa, Bilboko Emakumearen Udal Sailak antolatuta. 18 urtetik gorako emakumeei zuzenduta, gai librean eta 5-12 orri arteko luzerakoa. Epea: irailak 30.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Guk ez dugu uste poesia modaz pasata dagoenik”

ETXEBIZITZAK

3. Errentan emateko

• Igerilekua eta aire girotua duen apartamentua alokagai Saloun irailan, hondartzatik hurbil. Tel.: 943 79 38 84. 20:00etatik aurrera.

• Apartamentua alokatzeko Donostian. Irailako lehen hamabostaldian eta hortik aurrera ere bai. Tel.: 943 79 82 47 eta 943 71 96 29. Elena.

• Etxebizitza alokagai, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 77 00 29. Eguerdian edo gauaz.

• Lau gelako etxebizitza alokagai Arrasaten. Tel.: 607 84 86 73. 21:00.

• Altzairuak dituen teilatupe handia alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 04 86.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bila nabil, Arrasaten, lanean ari den jendearekin bizitzeko. Tel.: 943 81 28 18.

• Bi pertsonarentzako etxebizitza behar da. Tel.: 943 21 66 55. Larraitz.

• Hiru neska etxebizitza bila gabiltza Arrasaten. Tel.: 943 88 97 16. Garazi.

• Ikasleak gara eta etxebizitza alokatu nahiko genuke Arrasaten. Eskaintzarik baldin baduzu deitu mesedez telefono hauetara: 943 55 44 26 (Jon), 943 55 07 42 (Kepa). 21:00etatik aurrera.

• Lau ikaslek premia handia dugu Arrasaten etxebizitza alokatzeko. Tel.: 946 74 01 74 (Iñigo) eta 945 45 01 10 (Elvira).

• Haur bat izango duen bikote batek etxebizitza behar du hilabete batzuetarako. Tel.: 616 28 68 93 eta 943 79 96 10.

• Bikote batek etxe bat behar du errentan hartzeko (haurrik gabe). Pre-sazkoa da. Tel.: 943 79 67 11 eta 610 73 52 33.

• Arrasaten edo inguruetan etxe txikia eta merkea bilatzen dut. Tel.: 639 48 00 28.

5. Etxeak osatzeko

• Donostian etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 943 79 47 25. Ane.

• Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da Arrasaten. Tel.: 617 516

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

586. Ruth.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 13 20.

• Neska behar dugu etxebizitza osatzeko, Arrasaten. Tel.: 943 79 50 85 eta 944 60 76 98.

• Mutil bat behar dugu etxebizitza osatzeko Donostian. Tel.: 943 71 50 87.

• Ikasle batek etxebizitza behar du beste ikasleekin batera osatzeko. Tel.: 945 31 70 01. Arantza.

• Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 13 77 eta 943 44 50 53.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko, Donostian. Tel.: 670 27 65 77 eta 606 25 79 95 (18:30etik aurrera).

• Pertsona batentzako lekua dago etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 23 58 (Iban).

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Garaje bikoitza alokagai, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

14. Errentan emateko

• Restaurant bat alokatzen da Arrasate erdian. Interesatuok deitu 943 79 12 93 telefonora.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia alokagai. Tel.: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

LANA

17. Eskaintza

• Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu larunbat eta igandeetan. Tel.: 943 79 11 46.

• Umeak zainduko nituzke. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska bat prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Andra euskalduna prest umeak zaindu, plantxa egin eta etxeko lane-tarako. Tel.: 943 79 37 68.

• Andra euskalduna gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko, arratsaldez. Tel.: 943 79 07 73.

• Auto handia duen ospitale laguntzailea prest pertsona zaharrak eta gaixoak zaindu eta laguntzeko. Tel.: 609 77 01 33.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar dut etxeko lanak egiteko. Autoa, beharrezkoa. Tel.: 943 77 04 67.

• Emakume bat behar de etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 23 02.

• Pertsona euskalduna behar da arratsaldeetan ume bat zaintzeko. Tel.: 943 77 01 31.

• Zerbitzari bat, ahal bada euskaraz dakiena, eta sukaldari bat behar dira Oñatiko taberna baterako. Tel.: 943 78 34 79.

• Esperientzia duen andre euskalduna behar dut arratsaldeetan ume-ak zaintzeko. Tel.: 943 79 19 83.

• 30 urtetik gorako emakumea behar dut pertsona heldua zaintzeko. Tel.: 629 26 39 45.

• Bordatuak egiteko esperientziadun pertsona bat behar da. Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Pertsona euskalduna behar dut lanak egin eta umean zaintzeko. Tel.: 696 40 40 67. Ez bagaude, utzi mesedez abisua, telefonoa, etab.

• Pertsona bat behar da etxeko lane-tarako, orduka lan egiteko. Tel.: 943 79 89- 78.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Matematikan lizentziadun esperientziadunak eskola partikularrak emango lituzke udan. Tel.: 943 77 02 62.

• 1. eta 2. hezkuntzarako eskola partikularrak ematen dira euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Akademia batek OHO, ESO eta DBH-ko eskola partikularrak ematen ditu. Dei egin: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

• Ingeleseko klaseak emateko prest nago, urritik hasita. Tel.: 943 77 10 16.

• Ingeleseko eskolak ematen dira. Talde txikiak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70

21. Eskaerak

• Pertsona bat beharko nuke ordenagailuz lan bat pasatzeko. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00-23:00.

• Ingelesez hitz egiteko pertsona bat behar dut lehenbailehen. Tel.: 943 79 44 64.

• DBHko 2. mailako ume batek eskola partikularrak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 06 24 eta 943 79 94 52.

MOTORRA

23. Saldu

• Bi urteko Citroen Saxo 1-1i, SS-AY matrikuladuna salgai. Egoera onean.

Laneko tel.: 943 76 11 20, eta etxeko: 943 76 12 66. Xabi.

• Suzuki GSX-F/600 gorria salgai. 90. urtekoa da eta ongi zaindua dago. Tel.: 943 77 18 11. Ruben. 22:00etatik aurrera.

• Suzuki Lido 80cc SS-9754AK, 8.500 km. Egoera onean, ITV gauditurik. 95.000 pta. Tel.: 943 79 94 21. Fernando, goizez.

• R11 bat salgai, egoera onean. ITV pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 95.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Opel Kadet Van diesela salgai. Egoera onean, ITV pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 245.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Kawasaki GPZ/400 salgai. Tel.: 943 73 18 72 eta 943 73 12 82.

• Suzuki 50 cm³, 10.000 km. egi-na, gida baimenik barik ematekoa. Salgai Tel.: 943 79 82 06.

• Renault Super 5 GTL, SS-Z salgai. Tel: 943 79 39 39.

DENETARIK

26. Saldu

• Sango markako kanpin gurdia salgai. Hozkailu txiki elektronikoa oparitzen da erosiz gero. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 50 99.

• Kanpin gurdia saldu nahiko nuke, oso egoera onean eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.

• Pedigreea duten "artzain aleman" txakurkumeak salgai. Tel.: 696 05 73 46 / 943 85 32 44.

• Flex markako literak salgai, egoera onean. Tel.: 943 79 57 64.

• Lehen Jaunartzerako jantzia, mutilarena, behin bakarrik jarritakoa, salgai. Tel.: 945 27 99 16.

27. Erosi

• Disko singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

• Bigarren eskuko mendiko bizikleta merkea erosiko nuke. Egoera onean eta aluminiozkoa. Neurri altua. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00-23:00.

• Bigarren eskuko piano bat erosi nahi dut. Tel.: 943 79 73 82.

30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu astelehenetik ostegunera bitartean 670 30 02-69 telefonora. Maite.

31. Galdu

• Uztailaren 22an, Udala enparantza aldean agenda elektronikoa bat, datu pilo batekin galdu nuen. Aurkitu baduzu, dei iezadazu mesedez 943 79 27 09 telefonora.

• Betaurreko graduatuak galdu nituen abuztuan. Granate kolorekoak dira eta funda beltz batean gordeta neuzkan. Aurkitu badituzte, dei-tu mesedez 943 79 93 63 telefonora. Isabel, eguerdian.

32. Aurkitu

• Betaurreko batzuk agertu dira Larra-gain kaleko garajeetan. Tel.: 943 79 86 28.1

egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Lekuz aldatu gara.
Orain Olarte kaleko 14an gaude



Mondra futbol taldeak Peñasport taldearen kontra jokatu zuen 1954-55eko denboraldian, Iturripe zaha-

rrean. B mailan zeuden biak. Mondrak 4 eta 1 irabazi zion Tafallako taldeari. Baina izerdia ondo botata. Orduko denboretan gehiago entrenatzen omen zuten eta modu gogorragoan, gainera.

Taldekideak honakoxeak dira: zutik ezkerretik eskuinera: Angel Dominguez, Fernando Llorente, Eugenio Arregi, Luis Arregi, Juan Egidazu "Kurri" eta Juan Aranburu.

Belauniko, Pako Agirre,

Ignacio Mendizabal "Karral", Juanito Arriaran, Zubizarreta "Tololo" eta Jabier Urkiola.

Argazkia eta berriematea: Jabier Urkiola.



GRONDO

Elektrizitatea

- Elektragaiak
- Instalazioak
- Automatismoak
- Proiektuak
- Argiztapena
- Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Jangela, egongela, edo zuentzako nahiz umeentzako logela bat behar baduzu, zatoz Arrasateko TodoMueble Kabiara. Nahi dituzun altzariak, aurkituko dituzu ordaintzeko modurik onenean :

24 hilabeteko epea, interesik gabe eta 2000. urteko martxoan ordaintzen hasteko aukera eskaintzen dizugu.

**Gaur erosi eta
2000. urteko
martxoan hasi
ordaintzen!**

TODO Mueble **Kabiá**
DARIA OIA

**Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE**

Ordutegia: 10:15 - 13:30 eta 16:00 - 20:00. Larunbatak barne



Udazkeneko eskaintza berezia

- Fiesta* ■ 1.245.000 pezetatik hasita
- ESCORT** ■ 1.695.000 pezetatik hasita
1.6 - 16 v.
- Mondeo* ■ 2.094.000 pezetatik hasita

- "Plan Prever" barne
- Matrikulazioa eta S.M.F. kudeaketa sartu gabe



STOCK-ean erabilgarri dauden ibilgailuen prezioak

**DEBA GARAIKO
KONTZESIONARIO OFIZIALA**



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 45